

1. Zer ari da Ganix? Nork laguntzen du?
2. Eta jaun Ertera zer trepetan da? eta nua?
3. Emazteek zer diote?

II

GANIX IGELA

BASUSARRI-PUPURRAEKO 2

Ganix iratzarri zuen zarearen arrabotsak eta nun zen ere ez jaki-nez oihu egin zuen:

—Karako ihesi badoazkit p... horiek!

Mezako liburua bazterrerat botarik lau-hazka eman zen lurrean iheslari zikinak berriz bildu beharrez. Hura baino zaluagoak baitziren, ordean! Batto menea zueneko, frixt errien artetik lerratzen zitzaion. Ez jakin nola ez nundik lot! Buztanik ere ez izaki, alimale txar horiek!

Orduan xantre-lagunak eta bereterrak jin zitzaizkon Ganixi eskuli baten emaiterat.

Hor zabilzan gizon eta mutiko andana bat kokoriko eta, igelak iduri, saltoka, nun ez ziren sudurraz beheiti makurtzen urde ezkurza-leen pare.

Eta jaun erretora? Ah! hura ulitxetan zuten! Mahain sailduko esku-bandari ukumilka, nahiko zuen jendea ixil-arazi. Bainan nehork ez zion kasu egiten ere.

Igel ihiztariak zombait atxemaiten zituzten, bainan nola egin buruztziarik? Jadanik aldare aintzinetik barreatzen ari ziren hamar bat dotzena igel bederen elizan gaindi kadiren artean. Hots! orotan bazabiltzan.

—Ai, ei, Ama! Batek jaten ari nau!

Emazte batek batto senditzen zuen igaiten bere zangoetan goiti!

Orduan andere guziak hasi ziren beren zaien inarosten. Bazela asaldu, izialdura, laztura, auhen eta oihu, iduri zela jina munduaren akabantza. Bortz minuta gabe, ez zen gehiago nehor elizan, salbu jaun erretora. beti bere prediku-lekuan tente, eta leherkatu ez zituzten igelak...

Oren-erdi bat behar ukan zuen jendeak jabaltzeko. Orduan berriz tu zen elizan eta meza bururatu zen.

Geroztik Basusarrin Pupurraeneko Ganixi ez zioten Ganix-Igela baizik erraiten, eta kantatzean boza markesten zitzaiolarik, zombaitek bazerasaten: "Igel bat ez zaionez zintzurrean gelditu?"

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Lerratzen zitzaion 32. Hor zabiltzan
33. Jaten ari nau 34. Bazerasaten.
35. Ez zioten.

31 IZAN - Régime indirect. Indic. Imparfait

- Singulier - Zu zinen = vous étiez =
^{Zu = vous}
^{Zu = vous} zintzairkitan (à moi) = vous m'étiez
 " zintzairkion (à lui) = vous lui étiez
 " zintzairkigun (à nous) = vous nous étiez
 " zintzairkien (à eux) = vous leur étiez

Hura zen = il était

- (Hura (lui) zitzaion (à moi) = il m'était
 " zitzaigun (à vous) = il vous était
 " zitzaion (à lui) = il lui était
 " zitzaigun (à nous) = il nous était
 " zitzaiguen (à vous) = il vous était
 " zitzaien (à eux) = il leur était

Pluriel - Zuek zinezten = vous étiez =

- ^{Zuek (vous)} zintzairkitan (à moi) = vous m'étiez
 " zintzairkion (à lui) = vous lui étiez
 " zintzairkiguten (à nous) = vous nous étiez
 " zintzairkieten (à eux) = vous leur étiez

Hek ziren = ils étaient

- Hek (eux) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient
 zitzaizkigun (à vous) = ils vous étaient
 zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient
 zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient
 zitzaizkiguen (à vous) = ils vous étaient
 zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

32. IBILI = MARCHER. INDICATIF

Présent

Imparfait

Ni nabila = je marche	N. nindabilan = je marchais
Hi habila = tu marches	H. hindabilan = tu marchais
Zu zabilza = vs marchez	Z. zinabilzan = vs marchiez
Hura dabila = il marche	H. zabilan = il marchait
Gu gabiltza = {	G. ginabilzan = vs marchions
Zuek zabilzate = {	Z. zinabilzaten = vs marchiez
Hek dabilza = etc	H. zabilzan = ils marchaient